



Aiaraldea

Emakume langilearen eguna dela eta, eskualdea ekintzaz lepo 3. or.



Jendartea

Angelman sindromea, hiru kasu baino ez Aiaraldean 7. or.



Iritziak:

ANDONI ALDEKOA 2. or.
ITZIAR LARRAZABAL 6. or.
 KOLDO GILSANZ 7. or.
LUIS VIL 11. or.
 JON MUÑOZ 12. or.
IRATI MARAÑON 16. or

Aiaraldeko hamabostekaria
 2015 /// Otsailak 26 /// OSTEAGUNA
 29. zenbakia /// Doan ///
www.aiaraldea.eus

Aiaraldeko zine-aretoetan sarrerak agortuta



_sozioekonomia:

AITOR OTAOLA >
 SEAKo ZUZENDARIONDOKOA

“Merkatuen konfidantza berreskuratzeko beharrezkoa da bake soziala”

“Lan-erreforman sakontzea eta fiskalitatea murriztea eskatzen dute enpresek”



LITERATURA: Mikel Ayllon idazle audioarrak “Ez tiro egin ambulanziei” bere lehen elaberria argitaratu du. **NOBELA-AURRERAPENA** 10 or.

Torre de Ugao, 12 · **UGAO**
 Tel. 94 603 91 65

Foru Kalea, 2 · **AMURRIO**
 Tel. 945 39 33 51

Lamuza, 12 · **LAUDIO**
 Tel. 94 672 74 28

Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat

www.elkarseguro.com

_iritzia



Andoni
Aldekoa
KAZETARIA

_Leihotik

Lanbide heziketa

Orain dela egun gutxi, Bilboko Udalean lanean eman dudana denboran izandako bizipen atseginetako bat izan dut. Otxarkoagako Lanbide Heziketako zentroa bisitatzen egon nintzen, oinarriko LHko zikloak eskaintzeko eskola bat utzi baikeon. Zuzendariak, konpromiso maila handiko pertsonak, azaldu zigun bere eginkizun nagusia ez dela gazteak prestakuntza hartuta irtetea, baizik eta LHko erdi mailako zikloari helitzeko ohiturak eta jarrerak eskuratzea.

Europar egindako kalkulu araberako, oinarriko prestakuntza erdi mailako LH- duten gazteen % 7k soilik aurkitu ahal izango du lana. Euskadin, prestakuntzarik gabeko gazteen % 3 laneratuko litzateke. Gure industria espezializatu eta teknifikatuari zor zaio. Prestatutako gazte baten lanerantz aldian prestakuntzarik gabeko gaztearen erdia da. Funtsezkoa da gure gazteek gutxienez erdi mailako LH izatea, nahiz eta desiragarria den ziklo bat izatea. Euskadiko Lanbide Heziketako Zentroen bitartez, 2014an 74 enpresa sortu ziren, eta 2015erako aurreikusten da kopurua 100 izatea. Ekintzailatza zentroak dira. Aiarak bere kualifikazio handiko LH zentroak mantendu behar ditu, jarraipena eman behar die eta bere eskualdeko ekonomia-ehun eta enprekin batera lan egitea bultzatu behar ditu. Enpresak erakartzeko eta orain daudenak mantentzeko funtsezkoak diren elementuetako bat langile kualifikatuak izatea da. Eta, nire ustez, gure Herriak, Euskadik, badu proiektu eta erronka handi bat, ia eskusiboa: internazionalizazioa, bere lekua eta txokoa aurkitzea munduan. Baina hori beste egun bateko kontua izango da.



Juantxu
Langilea

Lehen banuen zinera joateko ohitura. Audioko Avenida zinemara joan ohi nintzen, eta baita El Castillo izenekora ere. Orain noizbehinka noa, Audioko Udal Lanbide Heziketa Eskolara. Oso ondo dago areto hori. Zentzu guztietan barre eginarazten dizute, hemengo jendea dira.

? _GALDERA

Zinemara joateko ohitura daukazu? Nora?

BIDEA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



Claudia
Dendaria

Bai, banoa zinemara, baina Bilbora. Hemengo zine-eskaintzaren ordutegiak ez datoz nire ordutegiekin bat, edo konturatzan naizenerako ez da sarrerarik egoten. Alabaina, Bilboko zinema oso garestia da ikuslearen eguna baliatzen ez baduzu, behintzat. Eta ikuslearen eguna lan eguna izaten da gainera.



Yolanda
Etxeko langilea

Nik ez daukat joateko ohiturarik, beti topatzen dut egiteko beste gauza hobe bat. Ez naiz Audioko Udal Zinemara joan, baina nire amak badu joateko ohitura. Ordutegia dela-eta, niri ezinezkoa egiten zait bertaratzea. Joatekotan, momentuan hobekien datorkidan lekura joaten naiz.



Casimira
Jubilatua

Hilean behin edo bitan joateko ohitura dut, nire alabarekin joan ohi naiz Bilbora. Amurrioko Antzokian ere izan naiz, baina antzerkia ikusten. Audiokoa ez dago guztiz gaizki: prezioa oso merkea da. Hala ere, nire ustez, Audiok kategoria handiagodun areto bat izatea merezi du.



Ariane
Sukaldaria

Orain ez dut zinemara joateko ohiturarik, baina lehen baneukan. Barakaldoko areto batera joan ohi nintzen. Gaur egungo zinema ez zait asko gustatzen. Garestia izateaz haratago, estreinatzen dituzten pelikulak ez dira oso onak izaten, horretarako hobe etxetikustea.

_gutunak

Aiaraldean lan, bizi eta ikasi!

Lukas Pasandin (Orozko)

Gazteoi sentimenduak nahasten zaizkigu sistemarekin lerrokatutako komunikabide, alderdi eta instituzio ezberdinetatik istorio berdina behin eta berriro entzuten dugunean. Zergatik ezin naiteke gurasoan etxetik kanpo bizi? Zergatik ari da hezkuntza geroz eta gehiago garestitzen eta elitizatzen? Zer gehiago egin dezaket lana topatzeko? Zergatik joan behar naiz atzerrira lanera?

Antolatzean, erakitzean eta borrokatzean dago gakoa. Ezinbestekoak dira hirurak.

Antolatu. Zapaldu guztien artean bloke bat osatu behar dugu, eragiteko ahalik eta gaitasun gehien izateko. Eraiki. Egoera latzenetan ere alternatibak erakitzeko gai garela erakutsi du historiak. Eraiki dezagun gaurdanik guk nahi dugun etorkizuna... Eta borrokatu. Borroka delako alternatibak erakitzeko, erantzuleak markatzeko eta gure jarduna aurrera eramateko bide bakarra!

Gazteok erabaki dugu kaleak hartzea goazela, borrokarako hautua egin dugu. Egoerari buelta eman ahal zaio eta hori gauzatzera goaz, gure etorkizuna marraztu eta erakitzeera goaz! Bete dituzagun Amurrioko kaleak gazteon aldarriz eta gazteon konpromisoz.

1976ko Martxoak 3

Txebe Alvarado Meabe (Laudio)

40 urte igaro diren arren, oroitzen dut nola soldaduska bukatuta, Aceros de Llodion neukan postuan sartu nintzen berriz, urtarilaren amaiera aldera. Martxoaren 4a iritsi zen. (...)

Garai hartako egunkariak Gasteizen aurreko egunean gertatutako sarraskiaren inguruko informazio zekarten. Goiz osoan zehar langileen arteko bilerak egon ziren fabrian, erantzun bat emateko asmoz. Hala, arratsaldeko lauretatik aurrera lan egiteari uzteko deia zabaldu zen. (...) Aparkalekuan kontzentrazio bat egin ostean, herriaren erdigunera arte manifestazio bat egitea adostu zen. JEZko langileak batu ziren zutabera. (...) Elizan asanblada egin zen gero, eta bertan hiru eguneko lanuztea deitzea erabaki zen inguru osoan. Hala prestatu zen Aiaraldeko lehen greba orokorra izango zena. Lanuztea erabatekoa izan zela esan daiteke. Manifestazio eta asanbladak egin ziren egunero. Eraildako kideen familientzako dirua ere bildu zen. (...)

Nire ustez, Gasteizko erahilketek, beste gauza askoren artean, grebak eta manifestazioak egitearekiko beldurra galtzea ekarri zuten. Aldarrikapen sozial eta politikoak orokortu egin ziren, kaleak okupatuaz. Orditik aurrera Fraga Iribarneren ondare izateari utzi zioten kaleak.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Tirada:

10.000 ale.

Maiztasuna:

Hamabostekaria

Lege gordailua:

BI-1230-2013

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

Publizitatea:

publizitatea@aiaraldea.eus

Tlfnoa: 669 83 57 87

Web-gunea:

www.aiaraldea.eus

Helbidea:

Nerbio Kalea 1, 3. esk.

Laudio. Araba. 01400

Telefonoak:

Tel: 94 656 85 54

ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g - Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com



Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com



JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g - LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // info@jez.es



ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Aiaraldea



Aldarrikapena eta aisialdia uztartzen dira Martxoaren 8an. aiaraldea.eus

Martxoak 8, ekitaldi eta aldarrikapen ugari eskualdean

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Martxoak 8ari lotutako berdintasun aldarrikapenak⁽¹⁾ oihartzuna izango du eskualdeko herri guztietan. Berdintasun Arloek emakume elkarte eta taldeen laguntza izan dute egitarauak osatzeko, eta elkarretaratzeetatik haratago hainbat emakumek ekin diote ekintzak antolatu eta plaza-

ratzeari. Menagaraiko emakume elkarteak, Hiriska, Matxintxu, Solastiar, Asasam, Etawasol, Avillo, Jakaranda, Adi Emakumeak, Sorgin Moreak eta Loraldi elkarteak, besteak beste, parte hartu dute antolatutako ekimenetan.

Horrela, kultura, trebakuntza, zinema, autodefentsa eta musiki-

ka lantzeaz gainera, emakumeek elkar ezagutzeko aukera izan dezaten hainbat hitzordu prestatu dituzte.

Gainera, egitasmo⁽²⁾ bitxia abiatu dute Laudion, filma labor parte-hartzaile grabatu baitute herriko gizon eta emakumeekin batera.

Boterea helburu

Bilgune Feminista erakundeak mezu argiazabaldutako Martxoaren 8aren harira: "Boterearen jabe izan behar dugu". Taldeak egun garrantzitsu horri begira eraldaketa⁽³⁾ soziala lortzeko lidergo feminista aldarrikatu nahi izan du.

"Orain, inoiz baino gehiago, sortzeko, antolatzeko, eraikitzeko eta eragiteko dugun gaitasunean sinistu behar dugu. Euskal Herrian aldatetarako abagune irekitzen den honetan feminismoaren sokari heldu eta eraldaketa soziala norabideratzeko ordua da, orain da momentua! Iparra argi dugu. Bagoaz Euskal Herriaren burujabetza feministarantz!" adierazi dute Bilgune Feministako kideek. Euskal Herria ez ezik, munduko beste txoko batzuk ere aipatu ditu Bilgune Feministak bere diskurtsoan eta era berezian Kurdistango emakumeen borroka goraiatu dute.

Hiztegi lagungarria

Aldarrikapena⁽¹⁾, errebindakzioa/ egitasmo⁽²⁾, iniziatiba / eraldaketa⁽³⁾, transformazioa

LOMCE eta EU2015 legeen aurka, ikasleak kalera



Ikasleek LOMCEren aurka. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Etxaurren Martin

LOMCE eta EU2015 legeen kontra daudela erakusteko mobilizazioarako deia luzatu du Ikasle Abertzaleak taldeak. Pasa den astean, "3+2" legea onartu zuten dekretuz. Lege horren arabera, graduak 3 urtekoak eta masterrak bi urtekoak izatera igaroko dira. Azken neurri horrek asko garestituko du hezkuntza. Horrez gain, erreforma unibertsitate pribatuen mesederako izango dela salatu du Ikasle Abertzaleak taldeak. Euskal Eskola Nazionalaren bidean hezkun-

tza herritik eta herriarentzat izatea beharrezkoa da, Iaren ustez.

Eskualdeko mobilizazioa

Horregatik, "Erreforme! plan! lolo!" lelopean nola Aiaraldean hala Euskal Herrian kale protesta egingo dute ikasleek gaur. Eskualde mailako mobilizazioa Laudion izango da. Manifestazioa 12:00etan abiatuko da Lamuzko plazatik. Mobilizazioaren parte hartzeoikastetxeetan lanuzteak deitu dituzte.

Ur zikinak kudeatzeko mahaia osatu dute

ERREDAKZIOA | Unai Gotxi

Aiaraldeko ur tratamendu berriak kudeatzeko erakundeen arteko mahaia eratu dute. Kantauriko Urkideetak abenduaren 5ean erakunde ezberdinez osatutako bilgunea sortzea erabaki zuen, ur zikinak garbitzeko garatutako pla-

na kudeatzeko asmoz. Urkideetak erekin batera, Kantauri isurialdeko Konfederazio Hidrografikoak (Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa), URA Agentziak (Eusko Jaurjaritza) eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiak parte har-

tzen dute sortutako mahaian. Erakunde horien ordezkariak Aiara, Okondoko, Artziniegako, Amurrioko eta Laudioko urak kudeatuko dituzte. Neurriarekin erakundearen arteko elkarrekintza berrmatzea bilatzen dute.

Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Euskal Herriko gaztetxe eta Gazte Asanbladen arteko topaketak antolatu dituzte Laudion. Egitasmoa martxoaren 13an eta 14an izango dira, "Ametsak errotuz" lelopean. Euskal Herriko proiektuak ez ezik kanpoko etxe okupatuetako esperientziak ezagutzeko aukera egongo da.



Eusko PC

- INFORMATIKA TRESNERIAREN SALMENTA ETA KONPONKETA
- SOFTWARE INSTALAZIO ETA KONFIGURAZIOA
- SAREEN INSTALAZIO ETA MANTENTZE ZERBITZUA

Zumalakarregi kalea, 47 Laudio 946087310 laudio@euskopc.com

MODA ETA OSAGARRIAK

GOROBI

ESKUZ EGINDAKO DISEINUAK

BLOG-a
www.gorobi.blogspot.com

EMAILA
gorobi.gorobi@gmail.com

FACEBOOK-a
Gorobi

Orozkoko



2014an irailean egindako udalbatza oso gatazkatsua izan zen. aiaraldea.eus

Errugabe jo dituzte Zubiaur eraikuntzak sozietateko kontseilariak

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi⁽¹⁾ duenez, EAJ eta Bilduko kontseilariak ez dute legez kontrako jarrerarik izan Zubiaur Eraikuntzak sozietatearen kudeaketan. Erabaki horren aurka ez dago helegitea⁽²⁾ aurkezteko aukerarik.

Ebazpena Bilboko Administrazioarekiko auzien lehenengo Zenbakiko epaitegiak uztailaren 8an eman zuen erabakiaren aurkakoa da. Izan ere, uztailaren epaile baten aginduz Zubiaur Eraikuntzako EAJ eta Bilduko ordezkariak joera ikertzeari ekin zioten, "delitu

zantzuak⁽³⁾" zeudelakoan. 2012an ordezkari horiek sozietatearengentzira kontratazioaren esleipena lehiaketan puntuazio gehien eskuratu zuen enpresari ez ematea adostu zuten. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ziurtatu du EAJ eta Bilduko ordezkarienasmoa prozedura modu zuzenean jarraitzea izan zela.

Irailaren hasieran Zubiaur Eraikuntzak Sozietatearen Ez-Ohiko Batzar Orokorra egin zuten eta eztabaida zakarraren ostean EAJ eta Bilduren bozei esker helegitea aurkezteko adostu zuten, ADIE taldea-

ren iritziaren aurka. Ondorioz, Zubiaur Eraikuntzak Sozietatean aritu diren EAJ eta Bilduko hiru kontseilariak Zigor Kodearen 262 artikuluan jasotzen den delitua egin ote zuten ikertzeko eskaera baztertu da, balizko zigor larriak bertan behera utziz (1-3 urte arteko espetxe-zigorra eta 12-24 hilabete arteko inabilitazioa).

Balorazio ezberdinak

Orozkoko udaleko alderdien balorazioak oso ezberdinak izan dira. EAJ pozik agertu da ebazpenarekin eta erabakiak prozedura egokia jarraituz hartu zituztela frogatu dela baieztatu du talde jeltzaleak.

Josu San Pedro alkateak kontrako hausnarketa egin du, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak auzia bertan behera uzteko arrazoia salaketa bi erakundetan egin izana dela ziurtatu du. Izan ere, lehena Eusko Jaurlaritzan egin zen, eta bigarrena epaitegietan. "ADIEri kezkatzeko modukoa iruditzen zaio gertakari larriak artxibatzea akats administratibo bategatik. Hemen oso merke ordaintzen da ustelkeria, azken finean nahi dutena egiten dute eta ez da ezer gertatzen", adierazi du alkateak.

EH Bilduk ez du auzia bukatutzat eman. Amaitutzat ematen duenean bere iritzia azalduko du dela adierazi du talde subiranistak.

Hiztegi lagungarria

Ebatzi⁽¹⁾, erabaki/ helegitea⁽²⁾, errekurtsua / zantzu⁽³⁾, aztarna, itxura, kutsu, traza

Urduña

Kintoak ate joka datoz



Martxoaren 7an ospatuko dute Kintoen jaiak Urduñan. Aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Haizea Ginea

Egunaren zentzua eta ospakizuna bera denborarekin aldatuz joan badira ere, Urduñako kintoen festa antolatu dute 18 urte betetzera doazen gazteek. Kintoen festa armadan sartu aurriko agur festa gisa sortu zen, eta egun mantendu egiten da. 32 dira 1997an jaiotako eta aurtengo kintoak diren neska-mutilak.

Ospakizunen barruan, urtarilaren 31n Urduñako kale eta inguruetako auzoetatik abesten eta diru eskean aritu ziren lehendabizi. Tolosako inauterietara joateko parada ere izan zuten ostean. Eta, azkenik, martxoak 7 izango da Urduñan jaialdia ospatzeko aukeratu duten eguna.

Egunari hasiera emateko, goizerako bi eskaintza desberdin programatu dituzte; Antzinarako Ama Birjina elizan 10:00etan

egingo den meza alde batetik, eta 11:30etatik aurrera umeei zuzendutako jolasak bestetik. Arratsaldeko egitaraua musikaz eta erritmoz betea egongo da. 20:00etan hasita, herriaren zehar Batukada arituko da jotzen eta gaueko 22:00etan hasiko diren kontzertuek itxiko dute ospakizuna. Astalapo, Green Valley eta DJ L'Trapiren kontzertuak izango dira.

Adinarekiko heldutasuna eskuratuko duten gazteez gain, belaunaldi desberdinek elkartzeko eta bazkari edo afariak egiteko probesten duten eguna da kintoena. Horregatik, ez da harriztekoa izango adin desberdinetako jendea koadrila handitan bilduta, bakoitza bere bereizgarriarekin (izan zapia, kapela, ilordea, gorbata...) Urduñan zehar ikustea.

Amagoia Elezkano hiltzailearen zigorra berretsi dute

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez

Amagoia Elezkanoren hilketa dela eta, bi helegite aztertu ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Justizia Auzitegi Nagusiak. Hiltzailearen defentsak basakeriagatik ezarri zioten zigorra kentzea eskatu zuen. Fiskaltzak, berriz, hilketa aitortzeagatik ezarri zioten aringarria kentzeko. Bi helegiteak bota ditu atzera epaiak, eta 22 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra bete beharko du Francisco Javier M. N.-k Amaia Elezkano hiltzeagatik. 2013ko maiatzaren 23an hil zuen Laudion Elezkano 42 labankada emanda. Arabako auzitegiak ebatzi zuen hilketa delitu baten errudun zela, eta azpikeria eta basakeria gehitu zizkion. Bikotekidea zelako zigorra handitu zuen, baina aitortu zuelako arindu egin zioten.



Ibarra auzoko errepidean jarritako hesiak polemika piztu du. aiaraldea.eus

Ibarra auzoko errepidean jarritako hesia dela eta, azalpenak eskatu ditu udalak

ERREDAKZIOA | Lukas Pasandin
Bizilagunen kexak jaso ondoren, Ibarra bidean jarritako babes-hesiei buruzko azalpenak eskatu dizkio Orozkoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari. Udalaren ustez, asko erabiltzen den bidean autoei eman zaie lehentasuna. Bizkaiko Foru Aldundiak BI-3513 erre-

pidean metalezko hesia jartzea hirugarren eremuko errepideetako ibilgailuei eusteko sistemaren araua betetzeko egin duela erantzun dio Udalari. Aldundiaren arabera, bera da errepidearen titular bakarra, eta beraz, berari dagokio errepide horren zaintza eta ustiapena.

Aiara

San Prudentzio jaiak iragartzeko kartel-lehiaketa abian da

ERREDAKZIOA | Unai Gotxi

Aiarako udalak aurtengo jaien kartel lehiaketa aurkeztu du. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du. Horretarako, martxoaren 24 baino lehen aurkeztu beharko dira lanak. Lehiaketan edonork har lezake parte. Lanek "Aiarako Jaiak 2015, Fiestas de Ayala" leloa eta Aiarako armarrira eraman beharko dute.

Kartelek 80 zentimetroko altuera eta 60 zentimetroko zabalera izan beharko dute. Zehaztu dutenez, diseinua koloretan egin beharko da, eta Aiarako festekin zerikusia duen elementuren bat izan beharko du kartelak. Lanak Aiarako udal-etxean aurkeztu beharko dira.



Laudio



Arrañoako antena kendu dute

ERREDAKZIOA I

Laudioko Arraño auzoan dagoen telefono antena handiena kendu dute. Urte luzez borrokatu dute auzokideek Abertris enpresaren antena kentzeko. Gehiegizko altuera zuela eta etxebizitzetik gertuegi zegoela salatzen zuten, horrek arrisku handia sortzen zuela erantsiz. Udalak eta enpresak 2013an sinatu zuten antena txikiago bat jarri eta egungo kentzeko akordioa.

Amurrio

HAPOari helegiteak egiteko epea ireki dute



Irigarritasunari lehentasuna emango zaio HAPO berrian. aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Amurrioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra abian da, EAJ, Bildu eta PSE-EE alderdien aldeko bozak eta PPren abstentzioa jaso eta gero.

Lau urtez aritu da lanean udala arau subsidiarioak aldatuko duen plana prestatzen. Alkateak azaldu du egitasmoak ez dituela bakarrik hirigintza gaiak jorratuko, beste hainbat esparru ere landuko baititu, sozioekonomia edo irigarritasunakasu. Azpimarratu duenez, helburua, besteak beste, lurzoru berriak erabiltzea da.

Helegiteak

Norbaitek helegiteak aurkeztu nahi izanez gero, bi hilabeteko epea izango du Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu bezain laster.

Horretarako Amurrioko Udaleko Erregistro Orokorreko bulego-rajoko beharko du, asteleheneretik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.

Amurrioko Hirigintza plana eza-gutuzeko hiru bide zabaldu ditu udalak. Lehena udalaren web-gunea

kontsultatzea da. Udal Plangintza-aren Berrikuspena atalean helegiteen eredu deskargatzea, hain zuzen ere. Bigarrena, Aurrez aurreko saioetan parte hartzea da, martxoaren 3an 18:30ean Plan Orokorra aurkeztuko baitute Katekesi aretoan. Bertan, herritarren kezak eta zalantzak plazaratzeko aukera egongo da.

Erakusketa publikoak

Horretaz gain, erakusketa publikoak egingo dituzte. Besteak beste, galderei erantzuteko pertsona bat egongo da.

Astelehenean abiatu zuten erakusketaren dinamika La Casonan eta bihar arte egongo da ikusgai, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Martxoaren 2tik apirilaren 16ra, udaletxe-ko bulego orokorren sotoratu mugituko dute. Administrazio Batzarretan ere egongo da ezagutzeko parada. Iragan asteburuan Delikako kontzejua-aretoan egon zen, eta larunbatean Lezamako kontzejua-aretoan, 16:00etatik 19:00etara.

Erabilera anitzeko areto bat egiteko proiektua aurkeztu du Udalak



Antzokiaren planoak eta proiektzioa aurkeztu dituzte. /Laudioko Udala

ERREDAKZIOA I

Laudioko erabilera anitzeko areto bat eraikitzekeko proiektu berri bat aurkeztu du Laudioko Udal Gobernu Taldeak. Aldaikoerreka plazan dagoen orubean⁽¹⁾ egongo litzateke aretoa. Bertan halako eraikin bat egitearen ideia

duela urte batzuk atera zen, eta Udalak enpresa bati enkargatu zion orduan hori posiblea izango litzatekeen jakiteko ikerketa egitea, Koldo Zabala zinegotziak azaldu duenez.

Aretoa lur azpian egongo li-

tzateke, eta 300 eserleku izango litzateke. Baina kontzertuetarako 210 eserleku kendu ahal izango dira, orotara 400 pertsonentzako tokia utziz.

Areto nagusiaz gain, eraikinak "ekoizpen⁽²⁾ artistikorako" zonalde bat ere izango luke, eta baita hainbat biltegi eta gela ere.

Aretoaren kostua 4.7 milioi eurokoa da azterketa honen arabera, baina ikerketaren egileek azpimarratu dute zaila dela aurrekontu zehatzago bat aurreikustea. Proiektua gainontzeko talde politikoei aurkeztu zieten asteazkenean, bai eta kultur taldeetan parte hartzen duten herritarrei ere. Zabalak adierazi du beste taldeekin adostasun⁽³⁾ batera iritsi nahi dutela proiektua aurrera atera dadin.

Hiztegi lagungarria

Orube⁽¹⁾, lur-saila / Ekoizpen⁽²⁾, produkzio / Adostasun⁽³⁾, akordio, kontsentsu

Justizia sozialaren gaineko jardunaldiak

ERREDAKZIOA I

Udaleko Ongizate arloa eta Laudioko Bizi Gara ekimenak justizia sozialaren inguruko hiru hitzaldi antolatuko dituzte. Martxoaren 10ean migrazioa izango dute hizpide Kultur etxeko Arraño gelan. Martxoaren 18an udaletxeke erabilera anitzeko aretoan "Via campesina" proiektua azalduko du Iñaki Urkixo EHNEko kidea, eta martxoaren 26an "alternatiba ekonomikoak"-izango dituzte hizpide.

Luis Rabanerak ordezkatu du Ruiz Cuesta udalean

ERREDAKZIOA I

Alvaro Ruiz Cuestak uko egin dio zinegotzia izateari Laudioko. Haren ordezkari Luis Rabanera de Pisón ari-tuko da PPko zinegotzi lanetan. Luis Rabanera Ramón Rabanera Arabako Ahalduen ohiaren semea da. PPK hedabidetan azaldu du etorkizuneko apustu garrantzitsua egin duela Luis Rabaneraren bitartez, esparru pribatu anibalibide luzea egin baitu eta alderdiari freskotasuna ekarriko baitio.

35 urteko eskaera fiskala Laredoko hiltzailearentzat

ERREDAKZIOA I Aitor Fdz de Pinedo

Fiskaltzak 35 urteko kartzela zigorra eskatu du iragan abuztuaren 17an Laredoko hondartzan zeunden laudioar bi, aita eta alaba, erailteaz leporatu dioten akusatua-arentzat. Herri epaimahai baten esku izango da orain M.R.I., Mercedes García Baliño eta Gabino García-aren ustezko hiltzailea epaitzeko ardurak. Akusatua fidantzarik gabeko kartzela-zigorra jaso du gertaera izan zenetik.

Hauxe da aldikaria diseinua berrituta eta sare sozialetan

ERREDAKZIOA I Uxue Tomé

Hauxe da Amurrioko udal aldikaria kolorez argitaratuko dituen hemendik aurrera aleak. Diseinu berriarekin eman diote hasiera garai berriari. Maketazio dinamiko-egiteko helburuarekin testuak hiru zutabera moldatu dituzte. Horrez gain, sare sozialetara ere egin dute jauzi. Hemendik aurrera, beraz, twitter, facebook, flickr eta Youtuben ere jarraitu ahalko dira Amurrioko berriak.

Arriskutik kanpo dago autoak harrapatutako gaztea

ERREDAKZIOA I

Auto batek harrapatutako 17 urteko neska arriskutik kanpo dago, Amurrioko Udaltzaingoaren arabera. Udaltzainek azaldu dute zauri ugari dituela adin gutxiak, eta informazioa zuhurtasunez zabal-tzeko eskatu dute. Istripua otsai-laren 18an gertatu zen, 07:45ean auto batek 17 urteko oinezkoa harrapatu zuenean. Istripuaren ondorioz neska gaztea erietxera eraman behar izan zuten.

sozioekonomia



ARABAKO ENPRESARIEN ELKARTEA (SEA)

“Lan-erreforman sakontzea eta fiskalitatea murriztea eskatzen dute enpresek”

AITOR OTAOLA (Gasteiz, 1968) SEA-ko Zuzendari-Laguntzailea da. Arabako zein Aiaraldeko enpresen egoera aztertu du, SEAREN ustez berreskurapen ekonomikoa gauzatzeko eman behar diren pausuak zehazteko.



Aitor Otaola SEAKo zuzendariondokoa. Argazkia: SEA

Itziar
Larrazabal
ELA

—Hankamotz

Orain bai, igande eta jai egunak Laudion jai!

Orain dela 6 hilabete salatu genuen Audioko Carrefour Express sal-toki berriak igande eta jai-egunetan irekitzen zuela. Eta, horrek ondorio ezin txarragoak zituela, bai lan-ikuspegiaren eta baita gizarte-ikuspegiaren ere.

Eraso berri honen aurrean hau izan zen ELAREN erantzuna: Aliantzak, informazioa eta mobilizazioa.

Gainerako sindikatuekin batera dendari txikien arduradunekin bilerak egin ditugu, Carrefour Express saltegiaren arduradunarekin bilerak egin ditugu, mobilizazioak, herria kartelez josi eta “Jai egunetan denok jai” Euskal Herri mailako kanpaina landuz sinadura bilketa abiatu. Igande eta Jai egunetan irekitzearen kontrako 600 sinadura inguru jaso genituen.

Eta lortu dugu! Audioko Carrefour Express saltoki berriak igande eta jai-egunetan ez irekitzea erabaki du. Hala jakinarazi digu, denda kanpoko hormetan ere kartelak ipini ditu eta.

Horregatik Aiaraldeko eta bereziki Audioko herritar guztioi eskerri asko eta zorionak! Horra hor subiranotasun ekonomikoaren adibide praktikoa bat, indarrak batuz lortu duguna. Gure herria ez dago merkealdi amaigabea.

Erosketa solidarioa defendatzen jarrai dezagun. Jai – egunetan denok jai!

ERREDAKZIOA I

Aiaraldeko enpresa handienek (Tubos Reunidosek, Vidralak eta Tubacexek) 315 milioi euro baino gehiago irabazi dituzte azken bost urteetan. Krisian al dago enpresa mundua?

Merkatua nola doan begiratu behar dugu, eskabide-zorroa eta salmentak nola doazen. Merkatuaren egoerari dagokionez, 2014ko itxierarako bete egin ziren urte erdirako egin genituen aurreikuspenak.

Eskabide zorroa (enpresa batek egiteke dituen eskaeren kopurua neurtzen duen parametroa) nola dagoen aztertuz gero, berriz, azaroan eskabide zorroen egoera hobetu egin dela ondorioztatu dezakegu.

Enpresen %40ak normaltasunean darama eskabide-zorroa, nahiz eta enpresa batzuetan gorantz doan.

Sektoreak bereiztea beharrezkoa da. Eraikuntzaren eta egurraren sektoreak dira kokapen okerrera dutenak. Metalgintzan datu askoz hobekak dituzte eskabide-zorroetan.

Bestetik, salmentak atzerrira egiten dituzten enpresen datuak askoz hobekak dira merkatua Espainian soilik⁽¹⁾ dutenekin alderatuta. Zuk aipatu dituzun enpresek atzerrian dute merkatua, eta azkenaldian asko hobetu dituzte euren emaitzak.

EAE mailan %0.96 jaitsi zen langabezia iaz. Aiaraldean, baina, %2.2 igo. Berreskurapen ekonomikoaren atarian gaude?

Guk inkesta nahiko luze bat egin dugu, hainbat adierazle daude hori aztertzeko. Inkesta horren arabera, gauzak hobetzen ari dira apurka-apurka, baina enpleguari dagokionez ez dugu uste 2015ko lehen sei hilabeteetan alderantzizko joerarik emango denik.

Eskualdean enpresen deslokalizazioaren afera⁽²⁾ pil-pilean dago. Gometegui edo Tubos Reunidosen kasuak daude. Enpresek Aiaraldetik alde egiteko arriskua dago? Ekidin⁽³⁾ daiteke?

Guk ez dugu horri buruzko

txosten zehatzik egiten. Baina badakigu zeintzuk diren Aiaraldeko enpresak gehien kezkatzen dituzten gaiak. SEAtik kalkulatu dugun beste indikadore batek Arabako eta Aiaraldeko enpresek administrazioei eskatzen dietena zehazten dute: lehen eskaera enpresen fiskalitatearen murrizketa da (enpresen %68ak eskatzen du). Bigarrena lan erreforman sakontzea da (%42aren eskariz), eta hirugarrena gastu publikoaren murrizketa eta defizita murgatzea (%40). Horiek dira hiru eskaera garrantzitsuenak.

Zeintzuk dira beraz, SEAREN aburuz, tokiko berreskurapen ekonomikora bidean eman beharrezko pausoak?

Egin behar duguna, batez ere, kontsumoa haztea da, Barne Produktu Gordina igotzea. Hori igotzen denean salmentak handitu egingo dira eta enpleguak gora egingo du. Hori argi dago.

Enplegua sortzeko BPGak datu positiboak izan behar ditu. Bestela oso-oso zaila da lana sortzea.

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzan (I+G+B) ere inbertitu beharra dagoela diote adituek. Aiaraldean %0.86 inbertitzen da, EAE mailako batz-bestekoa %1.9koa den bitartean. Enpresariak ez lukete horretan indar gehiago egin beharko?

SEAN badugu berrikuntza zerbiztu bat. Hortik Arabako enpresariak (Aiaraldeko ere) laguntzen diegu. Badira I+G+B egiten ez dutela uste duten enpresariak, baina egiten dute. Gugana enpresa ertain eta txikiak etorri ohi dira beraiek egiten dutena I+G+B den edo ez jakiteko. Egiten dutena ikustera joaten garenean I+G+B aldetik oso gauza interesgarriak egiten dituztela konturatu zuten gara.

Baina estatistikek diote enpresa ertainak direla krisiaren ondorioz gehien desagertu direnak.

Horrekin erlazioatutako datu zehatzik ez daukagu. Merkatuan kompetentzia oso handia izan da azken urteetan, produktuari bali-erantsia⁽⁴⁾ eman behar zaio.

Baina merkatua horren lehia-korra bada, ez litzateke enpresa txikien mesedera erregulatu beharko?

Halakoak kontu handiarekin egin behar dira, kompetentzia aska urratu⁽⁵⁾ dezakezulako. Institutioek programa batzuk jarri dituzkete martxan, baina programa horiek kompetentziaren legea bete behar dute. Europa mailan oso zorrotz begitatzten dute ea lege hori betetzen den.

Zerbitzuen mesedetan industriak pisua galdu du hemen. Ez dago beste aukerarik?

Dibertsifikazioa beharrezkoa da. Egia da zerbitzuen alorrak igoera handia izan duela. Baina industriak oso pisu handia izan du, eta sektore hori ere bultzatu beharra dago gobernutik programak abian jarritz, enpresen aldetik I+G+Bko prozedurak egiten... denok egin behar dugu bultzatza Aiaran industriak gora egin dezan.

Hiztegi lagungarria

Soilik⁽¹⁾, bakarrik / Afera⁽²⁾, gaia / Ekidin⁽³⁾, saihestu / Erantsia⁽⁴⁾, gehitua / Urratu⁽⁵⁾, apurtu, hautsi

“Salmentak atzerrira egiten dituzten enpresen datuak merkatutzat Espainia soilik dutenenak baino hobekak dira”

“Eraikuntzaren eta egurraren sektoreak dira kokapen okerrera dutenak. Metal arlokoak, berriz, datu askoz hobekak dituzte”

ANGELMAN SINDROMEAK

Irribarrearen atzean ezkutatzeko gaixotasuna

Irribarrea da Angelman sindromea dutenen ezaugarri nabarmenena. Baina horren atzean sintoma latzak ezkutatzeko erabateko dependentzia, epilepsia, buruko atzerapena... Gaixotasun arraroa da Angelmanena. Aiaraldean hiru kasu baino ez daude diagnostikatuta.



Artziniegakoa da Eneko, Angelman sindromea dauka. Argazkia: Aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado

Gaixotasun arraroa da Angelman sindromea. Espainian 250 kasu inguru baino ez daude Angelman Sindromea Elkartearen zerrendatuta. EAE mailan, berriz, 15-22 artean baino ez. Horietako bat da Artziniegako Enekoren kasua, Aiaraldean ezagutzera eman den bakarra. "Laudion badago beste kasu bat, baina gurasoak ez daude elkartean sartuta", azaldu du Enekoren ama den Marta Fuentes de Arribasek. Hala ere, orain delagutxi Urduñako kasu baten berri eman diotela gaineratu du. "Badago sindromea diagnostikatu gabe duen jendea, askotan beste gaixotasun bat izango balitz bezala diagnostikatu delako".

Artziniegan bizi da Eneko, eta zortzi urte ditu. Hilabete gutxi zituela diagnostikatu zioten Angelman sin-

dromea. "Hilabete bat egon zen ospitalean, eta alta eman eta hilabete batzutura esan ziguten gaixotasun hori zeukala", oroitu du Fuentesek. "Kolpe gogorra" izan zela ziurtatu du, ez baitzekiten gaixotasuna zer zen ere. Medikuek elkartean eskuorri bat eman zieten gurasoei, eta hor hasi zen guztia.

"Erabateko dependentzia"

Ugariak dira Angelman sindromeak dituen sintomak. Nabarmenena sindromea dutenen aurpegietan uneoro marraztua dagoen irribarrea da. Irribarre horren atzean, baina, badaude sintoma latzagoak. "Buruko atzerapen latza, epilepsia, lo egiteko arazoak... Ez da janzten, ez du bakarrik jaten, ez daki komunerajoa jaten..." hasi da zerrendatzen.

Artziniegakoa da Angelman elkartean dagoen aiaraldeen bakarra

"Bili daiteke, baina adi egon behar zara, eskaileraren bat edo egotekotan erori egin daitekeelako". Laburtuz, "dependentzia erabatekoa" dakar gaixotasunak, "jaikitzen denean oheratzen den arte".

Familian igaro dituzte momentu txarrenak. Enekoren amak epilepsia eragindako krisiak ekarri ditu gogora, orain hartzen duen botika-

rekin egonkorrago dagoen arren.

Beste aldetik, badaude kutsu(1) negatibo hori ez duten beste sintoma batzuk ere. "Oso lagunkoia(2) da Eneko", azaldu du Fuentesek, "taberna batera goazenean, adibidez, ahal bezainbeste pertsona bersarkatzen ditu".

"Badago integratzerik"

Arrarotzat katalogatutako sindrome bat izan arren, Artziniegako Eskolan dabil Eneko, beste umeekin batera. 14 hilabete zituela estimulazio goiztiarreko saioak jasotzen hasi zen, eta sesioen arduradunek eskola arrunt batean izena emateko gomendatu zieten gurasoei.

Eta hala egin zuten. Logopeda eta fisioterapia saioak jasotzen ditu Enekok bertan, eta bere amak ziurtatu du beste umeekin halanola integratzea lortu duela. "Polita da ikustea nola aritzen den futboleko dabiltzan umeen artean. Batzuetan baloiari ostikada bat ematen uzten diote, besteetan erori egiten da... baina polita da denak batera ikustea". Horretaz gain, sindromearentzako tratamendu bat bilatze aldera egiten ari diren ikerketekin "itxaropentsu" daudela adierazi du Fuentesek. "Angelman Sindromearen Elkartetik kontzertuak, azokak... makina bat ekintza egiten ditugu, ikerketa horiek finantzatzeari begira".

*info: BIDEOA

Angelman sindromea Aiaraldean



Hiztegi lagungarria

Kutsu(1), ukitu / Lagunkoia(2), jendearekin harremanak gustuko duena



Koldo

Gilsanz
HEZITZAILEA

_Hankamotz

Bila ta bila

Bila eta bila etengabe, noiz aurkituko ote benetan asetuko gaituen hori. Hamaiketakoa amaitu eta gero kafea, edo zigarratxoa, edo biak batera, zer demontre. Desioaren bulkada, zorientasunaren zilegizko bilaketa.

Udaberrirako praka berriak, azkenengo telefono supersonikoa, gaurkoan afal ostean izozkia, edo txupittoa, edo biak batera, zer demontre.

Desioak martxan jartzen gaitu, aktibatu. Oraingo egoerarekin pozik ez, edo erdizka, eta orduan falta zaigunarekin gogoratu eta horixe nahi dugu. Hobetu, garatu, aldatu... atzera goazelako aurrera ez bagoaz.

Zilegi da donuts bat ikusi eta erdian zerbait falta zaiola ikustea. Argi dago. Halaber, argi dago donutsa (don-hutsa) zuloaz aparte badela zerbait. Izan ere, zuloagatik da, bestela bonba izango litzateke.

Kontua da gizakiok nolabaiteko joku mentala dugula: hutsunea onartu beharrean bero-ri beteko duen zerbait bilatzea alegia, etorkizun hobe batekin amesten lagunduko digun zerbait. Merkatuak ondo baino hobeto daki hori, eta mila modu ditu geure burura sartu eta hutsunea beteko luketen hamaika gailu-liburu-arropa-opor zirriborrazeko. Eta gu, badaezpada, harien atzetik goaz.

Eta horrela ibiltzen gera, sortuz ta sortuz gure aukera, atsedetik hartu gabe, eta munduari ere atsedean eman gabe. Gizakion handinahiak mugagabea dirudi. Munduaren errekurtsioak, aldiz, mugatuak. Nola joan aurrera?


19. korrika UREPELETIK BILBORA 2015eko martxoaren 19tik 29ra

EUSKAHALDUN!

Jarraipen berezia www.aiaraldea.eus web-gunean

ELKARRIZKETAK, BIDEOAK, IRITZIAK, IBILBIDEA HERRIZ HERRI ETA KILOMETROZ KILOMETRO...

Zinema-aretoen urrezko aroa, iraganaren parte



1962an inauguratu zen Laudioko El Castillo zinema. Argazkia: Amalur Fundazioa

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldeak gaur egungoak baino garai hobekak ezagutu ditu zineari dagokionez. 60 eta 70. hamarkadak izan ziren oparoenak⁽¹⁾. Garai hartan pelikulak ikusteko hamar areto egotera iritsi ziren eskualdea: lau Laudion, bi Amurrion, eta bana Urduñan, Artzinegan, Orozkon eta Luiaondon.

Urduñakoak dira erreferentziarik zaharrenak. 1916 eta 1917an zinema proiektatzeko baimenak tramitatu ziren udalean, baina ez dago baimen horiek udalaren partetik erantzunik jaso zuten dioen dokumenturik. Hala adierazi du Kepa de Egiluz Isusik ADRA tan elkartearentzako egindako ikerketa batean. Bertan, Egiluzek Donibane kalean "Zine zaharra" kokatua zegoenaren ustea dagoela azaltzen du, baina ez dago areto horren inguruko informaziorik.

1942an, berriz, "Cinema Orduña" aretoa ireki zen, 299 eserlekuekin. Urtero 120 filma inguru proiektatzen ziren areto horretan. 1965an, baina, aretoaren jabeek zinema berri bat eraikitzea erabaki zuten, 499 eserlekukoa.

Amurrion, berriz, bi areto zeuden: Katekesikoa eta LAVIRE zinema (La fuente, Villanueva eta Respaldiza bazkideen artean irekitako aretoa).

Urte horietarako, ordea, lau ziren Laudion funtzionatzen zebiltzan aretoak, Amalur fundazioak egini-

60-70. hamarkaden artean izan zen zinema-aretoen loraldia; Aiaraldean hamar areto egotera iritsi zen. 2004rako, baina, denak zeuden itxita. El Castillo zinema izan zen azkena.

ko ikerketaren arabera: Cine Llodio (1942an *Edurne zuri eta zazpi potxak* filmaren proiektioarekin inauguratutakoa), Avenida (1962), El castillo (1962) eta La Sallegoa (fraileek kudeatutakoa). Bestelako ekintzetarako ere erabiltzen ziren areto horiek. El castillo zinemaren, adibidez, ospe handia hartu zuen *Villosa* lantegiak antolatutako umeentzako marrazki lehiaketak.

Frankismoaren guraizeak

Eliza zen, hain zuzen ere, Artziniega, Luiaondo eta Orozkoko zinemak kontrolatzen zituen.

Artziniegakoa parrokoaren ekimenez sortu zen, eta parrokoak bera zen guraizeak hartu eta egokiak iruditzen ez zaizkion filma zatiak moztu zituen. Hala oroitu du zinemara joateko ohitura zeukan Jose Luis Fernandez Zurbituk; "Zinema zen, jaiekin batera, herrian funtzio sozial garrantzitsuena betetzen zuena".

Orozkon, berriz, apaiza arduratzen zen irudi "ez-egokiak" iristen zirenean proiektorearen aurrean kartoi zatibat jartzeaz; "jendearen haserrea eragiten zuen horrek", oroitu du bertan proiektio arduradun moduan lan egindako Jose Duarte. Hala ere, Duarte azpimarratu du gaur egun ere zentsura dagoela, "beste mota batekoa da, baina gogorragoa".

1916koak dira Aiaraldean zinema-aretoei buruz dauden erreferentziarik zaharrenak. Baina eskualdeko zinema areto gehienak 40-50. hamarkaden artean ireki ziren. 1960-1970 urteen artean 10 zinema-areto egotera iritsi ziren Aiaraldean. Frankismoak proiektatzen ziren filmeen kontrol zorrotza egiten zuen, baina horregatik zinemak ez zion herritarren aisialdiaren parte garrantzitsu izateari utzi. Orduetik gaur egun arte, baina, zinema-aretoen erabateko murrizketa eman da eskualdean.

Herriko apaizak ziren askotan filme zatiak mozteaz arduratzen zirenak.

Zine-klubek ere funtzio garrantzitsua bete zuten zinearen zabalpenean. Amurrion zein Laudion egon ziren.

Gainontzeko herriek ere ezin izan zuten zentsura frankista ekidin. Zentsurari "loteen legea" erantsi zioten. Zinemek ezin zituzten pelikulak banan-bana alokatu, multzoetan eskuratu behar zituzten, eta atzerriko filma bakoitzeko hiru pelikula espainiar proiektatu behar ziren, Egiluzen hitzetan.

Frankismoaren azken urteetan, baina, bestelako filmak ikusi ahal izan ziren eskualdeko aretoetan. "Destapea" bezala ezagututako mugimenduari loturiko pelikula erotikoez gain, zinema politikoa ere garrantzia hartzen hasi zen.

Frankismotik begi onezikustenez ziren pelikulak proiektatzerako orduan ekarpen garrantzitsua egin zuten zine-klubek. Laudioko lehen zine-kluba 1963an jarri zen martxan, eta 200 bazkide izatera iritsi zen, Amalur Fundazioaren arabera.

Amurrion, berriz, 1979ra arte itxaron behar izan zen. Orduan sortu zen Inguruko zine-kluba, bederatzi urte inguruko ibilbidea izan zuena.

Aretoen itxiera

Frankismoaren ostean, baina, nabarmen egin zuen behera zinearen jendearen kopuruak. Gauzak hala, aretoak ixten hasi ziren.

Artziniegakoa eta Orozkokoa izan

zirenixten lehenak. "Parrokoak alde egitean gazte batzuen artean zinemari eusten saiatu ginen baina azkenean itxi egin behar izan genuen", adierazi du Artziniagako Jose Luis Fernandez Zurbituk. Eskualdeko gainontzeko lekuetan gradualea izan zen itxiera: Urduñakoa izan zen lehena (1985), Amurrioko Lavide bigarrena (1992) eta Audioko Avenida hirugarrena (1998). El Castillo zinema izan zen gehien iraun zuena, baina 2003an hurak ere bere ateak itxi zituen.

Frankismoaren ostean nabarmen egin zuen behera zinemara zihoan jende kopuruak. 2003an itxi zituen bere ateak azken aretoak.

Gaur egungo egoera

Gaur egun, bi dira Aiaraldean zinemaz gozatzeko dauden lekuak: Audioko Udala Lanbide Heziketa Ikastetxeko aretoa (Audio Top Zinema programaren bidez) eta Amurrioko Antzokia. Zein da, ordea, areto horien eta lehen zeudenen arteko ezberdintasuna? Oraingoak Udalen ekimen eta diru-laguntzen bidez ateradirela aurrera,

lehen zeudena ekimen pribatuak ziren bitartean.

"Lehen Laudion hiru zine-areto egoteko baldintza ekonomikoak zeuden", azaldu du gaur egun Audio Top Zinema programaz arduratzen den Jose Duartek, "baina gaur egunez dabideragarria". Kultur ekin-tzei ezartzen zaien presio fiskala da Duarterentzat bideragarritasun falta horren arrazoi nagusia, "hemen %21eko zerga dago, Japonen, adibidez, %5koa den bitartean".

Beste arrazoi batzuk ere badira. Zinema ikusteko bestelako formatuen ugaritzea eta Bilbo zein Gasteizen "multi-aretoak" eraikitzeak ere izan du eragina. Kepa Sojo zinemagile audioarraren esanetan, "zortzi pelikulen artean aukeratu ahal duzu areto horietan, herrietako zinemetako eskaintza txikiagoa da". Horretaz gain, estreinaldi batzuen eskulibria monopolioek izan ohi dutela gaineratu du Sojok.

Tresneriaren garestitzea

Patxi Urkijo zinemagile audioarrak, bere aldetik, zinea proiektatzeko tresneriaren prezioaren igotzea ere aipatu du: "1980an 35 milimetroko formatuan zegoen filma bat alokatzeak 25-30 mila pezeta balio zuen. 1990tik aurrera, baina, hirukoiztu egin zen prezioa". Bestalde, banatzaileek ekipo zaharrak gailu berriago batzuegatik ordezkatzerantz derrigortu zituztela azaldu du Urkijok eta gaineratu du aintzinako areto asko ez zeudela gaur egungo larrialdi planetara egokituak⁽²⁾, eta egokitze-lan horiek diru asko inbertitzea zekar-tela⁽²⁾. "Hori izan zen Audioko Avenida eta El Castillo zinemai, adibidez, gertatu zitzaiena".

Hiztegi lagungarria

Oparo⁽¹⁾, emankor, on / Egokituak⁽²⁾, moldatuak / Zekartela⁽¹⁾, suposatzen zutela

Zinema, eskualdetik atera gabe gozatu daitekeen artea

Ez dago Bilbo edo Gazteizera joan beharrik pelikulak ikusteko. Gaur egun bi dira eskualdean zinema eskaintza duten aretoak: Amurrioko Antzokia eta Audioko Lanbide Heziketa Udala Ikastetxearen aretoak.



Orozkoko Donibane Aretoan filmak proiektatzeari utzi egin behar izan diote. Argazkia: Orozkoko Udala

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Areto komertzialik ez dagoen arren, ez dago zertan eskualdetik kanpo joan behar zinemaz gozatzeko. Amurrioko Antzokiak hamar urte beteko ditu maiatzean, eta eraiki zen momentutik ekin zitzaion bertan pelikulak proiektatzeari. Filmak estreinatua izan eta aste gutxira proiektatzea lortu dute bertan, baina Kontxesi Elejalde kultur teknikariak azpimarratu du, filma estreinatua berria izan edo ez, jendearen harrera "oso ona" izan dela, "Ocho apellidos vascos, adibidez, estreinatua zenetik zortzi hilabetera jarri genuen, eta aretoa bete egin zen". Euskarazko filmeen harrera, baina, pelikularen arabera dela aitortu du kultur-teknikariak, "filma famatua bada badao jendea, baina oso ezaguna ez bada ez da horrenbeste ikusle egoten". Loreak filmaren proiektzioan, baina, zerbait bitxia gertatu zela azaldu du: "gaztelerazko azpitituluek huts egin zuten, baina inor ez zen aretotik atera, ezta euskaraz ez zekitenak ere".

Laudio Top Zinema programak, berriz, bederatzi urte daramatza Audioko LHUIn pelikulak proiektatzen. Programaz arduratzen den Jose Duartek azaldu du ekimena "pertsonei konkretu batzuei esker" joan dela aurrera, eta gaur egun ez luketela arazorik izango "edo zein estreinaldi" Laudiora ekartzeko. "Publikoa, gainera, mantendu egin da".

Duartek ziurtatu du bideragarria⁽¹⁾ izango litzatekeela eskual-

Areto batzuk ezin izan dute 35 milimetroko formatutik digitalera bitarteko saltoa egin. Orozkoko Donibane Aretoan zinema eskaintza, adibidez, bidean geratu da.

dean zinema-areto komertzial bat irekitzea, "baina jada eraikin egokitu bat izanda". Patxi Urkijo zinemagilea, berriz, ez da horren baikorra: "Hemengoaberi hartu izan dugu hirugarren mailakotzat, ikusi baino lehen ere", azaldu du, "baliteke zinema-aretoena aspaldi igarotako trena izatea".

Formatu aldaketaren biktimak

Berriki beste aldaketa bat bizi izan dute zinema aretoek: 35 milimetroko formatuan proiektatzetik sistema digitala erabiltzera pasa dira. Banatzaileek jada utzi diote 35 milimetroko filmak eskaintzeari eta, beraz, Laudion eta Amurrioren ere ekipo berria erosi behar izan dute zinema eskaintza mantendu ahal izateko. Aldaketa horrek "diru asko inbertsioa" egitea suposatu die la adierazi du Elejaldek, eta gaineratu du filmaren alokairu prezioa berdina izaten jarraitzen duela, nahiz eta kopia digitalak egitea askoz merkeagoa izan.

Eskualdeko zinema-areto guztiek, baina, ez dute digitalerako salto hori ematerik izan: Orozkoko Donibane Aretoak ezin izan du ekipo berriaren kostua bere gain hartu⁽²⁾ eta, ondorioz, bertan behera geratu da bertako zinema-eskaintza.

Hiztegi lagungarria

Bideragarria⁽¹⁾, posiblea, egingarria / Bere gain hartu⁽²⁾, asumitu




Artziniagako museo etnografikoan dagoen proiektorea. / Unai Gotxi

_kultura

LITERATURA

“Ez tiro egin anbulantziei”, Mikel Ayllonen lehen nobela

Gaur egungoaren antz handiegia duen mundu batean girotu du idazle audioarrak bere lehen eleberria.



Martxoaren 4an aurkeztuko du Ayllonek liburua. Argazkia: aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

2013ko irailean jaso zuen Mikel Ayllon idazle audioarrak Igar-tza saria. Ez zuen jada⁽¹⁾ egin zeukan lan bategatik jaso, bukatzeke⁽²⁾ zuen proiektu batengatik baizik. Ordutik hona proiektu hori garatzeko denbora izan du Ayllonek, eta martxoaren 4an aurkeztuko du emaitza Elkar argitaletxearen eskutik: *Ez tiro egin anbulantziei* eleberria.

Idazle audioarrak aurreratu du idatz duena ez dela nobela arrunt bat, “ez-leku eta ez-denbora batean gertatzen den ez-ekintza bat kontatzen duen ez-nobela bat” baizik. Ugariak dira, Ayllonen esanetan, liburua ezohiko egiten duten elementuak. Alde batetik, kontraeraren ordena. Atzekoz aurrera doa kontakizuna, “ondorioak arrazioen aurretik jarrita”. Horrela, “kartzelatik eta heriotzatik”, “maitasunera” eta, bukatzeko, “borroka nahi, amets eta grinetara⁽³⁾” egiten du salto nobelak, Ayllonek azaldu duenez.

Zehaztu gabeko mundu distopiko batean dago istorioa girotua, baina Ayllonek ziurtatu du ez dela horren handia gaur egungo munduaren eta jendarte distopiko horren arteko alde. Izan ere, bere ustez, “oso agerikoa da orain arte balio izan duten paradigma guztiak gainbehera datoze-la”. Liburuko bi protagonistak “mundu zaharraren gainbeheraz” ohar-tuko dira. Egoera horren aurrean bakoitzak hartutako erabakiek gidatuko dute *Ez tiro egin anbulantziei* eleberria, amaieratik hasierara.

Hala, eleberria bera da idazle audioarrak eginiko ekarpena mundu zaharrari “amildegan behera” bultzatzeko. “Horregatik behar nuen kontatzeko beste modu bat, modu ezinbestean deseroso bat”. Hainbat

teknika narratibo erabili ditu Ayllonek horretarako, eta azpimarratu du istorio nagusia “azpitik” joango dela, “lerro arteetan, elipsietan eta isilueetan”. Hala, eleberria filma bat izango balitz “ohikoan baztertuak geratzen diren planoekin” osatua egongo litzatekeela azaldu du, “filma osatzeko beti bazterrean uzten diren zatiek, ustez ez daukate-lako nahikoa interesik, nahikoa edertasunik, nahikoa ez-tandarik, nahikoa ekintzarik, nahikoa sexurik, nahikoa artifiziorik”.

Bigarren liburua

Ez tiro egin anbulantziei da Ayllonen lehenbiziko nobela, baina ez argitaratu duen lehen liburua. 2006an *Gerezi gorrien garaia* argitaratu zuen Paul Asensiorekin batera. Bidazleek Entzutegi Nazionalen beste hamarnaka gazte-ekin batera izan zuten epaiketa-ren kronika jasotzen zuen lanak.

Hiztegi lagungarria

Jada egin⁽¹⁾, ordurako egi-na / Bukatze-ke⁽²⁾, oraindik bukatu gabe / Grin⁽³⁾, pasio / Ekarp⁽⁴⁾, apor-tazio

_nobela aurrerapena

FREGONA mutur batetik bestera darama, indarge, eta, pasillo estuaren izkina bakoitza jotzen duenero, badirudi azken hatsa ematera doala. Draz, draz. Lur berdean iltzatuak ditu bere begi argiak, gardenak ia, bustita uzten dituen zatien distira iheskorrek, kasik ikusezinek, aurrera jarraitzeko adorea emango baliote legez. Draz, draz. Urte luzez, lu-zeegiz, jardun berean aritu denaren mugimendu ia mekanikoekin badoo lana betetzen, orain eskuinera, orain ezkerrera, eta pau-so bat atzera. Eta ematen du korridorea, urteen iragate geldoa nola, ez dela sekula bukatzen. Draz, draz.

Kanpotik heltzen diren zaratotsek ez dute batere asaldatzen. Iduri luke ez dagoela inor esku zimur, beso zimel eta oin baldar horien barruan. Iduri luke ez dela han inor, arrakalek zulatutako azal zuri horren azpian ez dela ezer. Hutsa.

Draz, draz. Azken mugimendua, ezker-eskuin, eta kito. Iritsi da pasilloaren amaierako leihora. Fregonaren makila askatu eta buelta eman du Fredek. Burua nekez altxatu duenean ikusi du, han urrunean, goizaren ertz bat argitzen hasi dela.

–ETA zuk zer egiten duzu hemen?

Galdera entzutearekin batera taldetik aldendu da Telmo, bada-ki-eta zer datorkion gainera.

–Eta ez zaitetz hasi berriro iraultza egitera joan zineneko istorio zoro hori kontatzen! Leloak garelakoan ala?

Iraultzaileak ez daude ondo ikusita bertan. Bandera gorriak dantzan jartzeko haize gutxi dabil aspaldi luzean.

–Beste istorioren bat asmatzeko astia izango zenuen ba!

Eskuak poltsikoan, indarrez heltzen die paper pusketara batzuei, kasik zimurtzeraino. Jakin badaki hori duela bere egiazen froga bakar. Paper horailduan, munduaren bestaldetik, umetako lagu-nak trakets idatzitako lerroak.



Luis Vil MUSIKARIA

_Kamerinoa

Lonjak

8D. hamarkadaren hasieran jaio zen gaueko aisialdia eskualdeko zonalde askotan. Atzean geratu zen frankismoaren he-rentzia, zeinetan tabernak gure aitek karta partidak jokatzeko baino ez zeuden. Bizitza modu berri bat jaio zen: tabernen gi-roa, zeintzuetan edan, dantza egin edota sexualitatea askata-sunez bizitzen zen. Espazio ho-rrren aldeko defentsa eta bo-rrroka egin behar genuen fami-lia artean geundenean, gure gu-rasoen belaunaldiak ez zituelako garai berrien nondik norakoak ulertzen, eta arriskuan ikusten zutelako eurek bizitako ezarri-tako ordena.

Historia errepikatu egiten da beti, belaunaldiz belaunaldi. Beti mesfidatzen da belaunaldi be-rrien bizimoduez. Orain, gure seme-alaben bizimoduez. Eta askatasun gehiago lortzeko egin genuen borroka guztia kontra-rra datorkigu orain. Gazteak jada ez doaz tabernetara. Orain lon-jak alokatu eta euren aisialdia autogestionatzen dute. Eta gu-tako askok mesfidantzez egiten diogu so pausoa aldatua dugu-la harrapatu gaituen aisialdi ere-du horri, eta gure garaia hobea-go izan zela aurpegiratzen die-gu. Inoiz ez dugu jakingo hobea-go eta txarragoa izan zen. Bai-na argi dagoena zera da: garai hauek belaunaldi berriei dago-kiela eta eurak izango direla eu-ren aisialdia nola kudeatzen du-ten kontatuko duen istorioa ida-tziko dutenak. Ostalariak kexu dira asteburuetakoa gauetan eu-ren tabernak hutsik ikusten di-tuztenean, agian eurak ere ez dira gai izan eboluzioari obe-ditzeko, agian euren formulek ere ez dute jada balio.



_kultura

_kultur leihoa

Lander Arteaga
ZINEMA

Still Alice

Zuzendariak: Richard Glatzer, Wash Westmoreland
Aktoreak: Julianne Moore, Alec Baldwin, Kristen Stewart...
Iraupena: 101 minutu



Alice, bere buruz eta ahalegin handiz eraikitako bizitzaz eta familia harro dagoen, unibertsitate irakasle bat da; hiru seme-alaba, unibertsitate ikertzailea den senar arrakastatsu bat eta hizkuntzalari giza mundu osoan irabazitako fama. Bat batean, nahasita sentitzen hasterakoan, zoritxarreko diagnosi bat bere mundua, eta familia arteko harremanak, behin betiko aldatuko ditu: alzheimer goiztiarra.

Ahantzura, bakartia eta gogorra. la guztioi beldurtzen gaituen hitz xume bat. Nola borrokatu ahantzura? Zein eragin dio ahantzurak gure nortasunari? Gure oroimenak galdu ahala, posible al da gure nortasuna mantentzea? Nola borrokatu alde aurretik galduta duzun guda bat? Hauek eta beste hainbat galdererantzun bat ematen saiatzen den filma hunkigarri bat dugu gure astehonetako proposamena: Siempre Alice.

Filmaketa eta giro klasiko batez jantzia, Siempre Alice filma (Espainian jarritako izenburua baino hobea goa jatorrizko Still Alice, Oraindik Alice), gaixotasunen inguruko ohiko kontaketa eskema jarraitzen badu ere, ezaugarri berezi bat du: Julianne Moore aktorea. Moore-k egindako lana ikusgarria da, eta horregatik pasa den igandean Emakumezko aktore onenaren sariaren irabazle bikaina izan zen.

Ikusi beharrekoa Siempre Alice, beti Julianne Moore.

Amurrioko Antzokian proiektatuko da filma, datorren martxoaren 8 eta 9an.

Bilboko mozorro lehiaketa irabazi du Kasilda Marañonek



ERREDAKZIOA I

Kasilda Marañonek Amurrioko irabazi du Bilboko Konpartsek antolatzen duten mozorro lehiaketa. Ez da txapelketa hori irabazten duen lehenbiziko aldia, aurtengoarekin lau aldiz lortu baitu saria.

"Udazkeneko uzta" izan dabere mozorroa eta birziklatutako materialak erabili ditu: intxaurrak eta kartoia, adibidez. Kasildak 30 urte baino gehiago daramatza mozorroak diseinatzen. Hainbat sari eskuratu ditu: Sestaon, Bilbon, Gasteizen, Amurrión... Baina berak sariak baino jendearen txaloak nahiago dituela dio.

Lan handia da horrelako mozorroak sortzea. Noizbait abuztuaren prestatzen hasi dela adierazi du Marañonek. Kasilda bere semea eta alabarentzat hasi zen mozorroak egiten, eta aurtun alabarekin parte hartu du Bilboko lehiaketan.

Aimara antzerki taldeak Epaimahaiaren Sari Berezia jaso du Zaragozan



ERREDAKZIOA I

Amurrioko Aimara Antzerki taldeak Epaimahaiaren Sari Berezia jaso du Zaragozako Antzerki Ez Profesionalen jaialdiaren VI. edizioan. "Yo soy la revolución" lana antzeztuta lortu dute saria Aimarako kideek.

Ez da antzerki obra horregatik lortu duten lehen saria izan. Rivas Vaciamadrideko jaialdian Muntai Onenaren saria jaso zuten, eta taldeko kide den Raul Garcia taldeko aktore onenaren sarira egon zen nominatua, antzezlanean egiten zuen paperagatik.

Hurrengo zitak

18 urte daramatza aimara antzerki taldeak taula gainean. 14 obra antzeztu dituzte guztira, eta "Yo soy la revolución" da egin duten azken lana. Martxoaren 14an Abadiñon aurkeztuko dute obra, eta 19an Zallara joango dira.

Dozenaka ekintza Korrika kulturalaren egitarauan



Nafarroa kanta taldea egongo da Amurrión/NKT

ERREDAKZIOA I

Datorren martxoaren 25ko goizaldean igaroko da Korrika Aiaraldetik. Baina Korrikarekin batera herriz-herriz antolatu ohi diren kultur egitarauak martxan daude jada. Audio, Amurrión eta Urduñan dozenaka kultur ekintza prestatu dituzte. Ekintzetako asko AEKko ikasle eta ikasle ohiek antolatu dituzte.

Laudion gaur (otsailak 26) hasiko da Korrika Kulturala. Asier Otamendik bere bidaie buruzko diaporama aurkeztuko du, Basalarrina Topagunean, arratsaldeko zazpitan. Martxoaren 14an, berriz, Bertso-korrika egongo da Arrainope tabernan. Horretaz gain, Baserritar eta artisauen azoka (martxoaren 14an), mendimartxa (22an), *Desetxufatuak* antzezlana (23an), galletak egiten ikasteko tailerra eta kantu jira (27an). Korrikari harrera

egiteko, berriz, batukada eta kontzertua egongo dira.

Amurrión martxoaren 18an izango da lehen ekintza, *Infinite scarf* ikastaroa. Hurrengo egunetan running-ari buruzko hitzaldia (23an), Korrikaren argazki eta bideo zaharren proiektzioa (24an), antzerkigintzari buruzko solasaldia (25an), Nafarroa kanta taldearen kantu-jira (26an) eta Babiora martxa (28an) egongo dira.

Urduñan ipuin kontalaria (26an) eta Euskal kanta herrikoiak (28an) egongo dira, eta Korrika igaro ostean txokolatada egingo da Gazte-txean.

Korrika txikiak

Eskeletako hurrek, ohiko lez, euren Korrika propioa izango dute. Amurrión eta Urduñan martxoaren 27an egingo da eta Laudion 26an.



Jon Muñoz

IRAKASLEA

_Lurpetik

Ahoz kontatutako gauzak,
herri ondare ez materiala

Nekazal guneetan, lurrak indarra hartzen eta gauak egunari orduak kentzen zizkion unean, etxeko suaren inguruan biltzen ziren familiako kideak. Hor, ahozko tradizioak edo ahoz kontatutako gertakariak garrantzia hartzen zuten, belaunaldi berriei kondairak, istorioak, bizitzaren anekdotak, historia, kantak... transmititzen.

Industrializazioarekin eta ikus entzunezko komunikabideekin hori aldatzen hasi zen, ia desagertzerara eramanez. Egun, pertsonen arteko komunikazio birtual eta teknologikoak gailentzen diren unean, gero eta murriztagoak dira belaunaldien arteko ahozko kontakizunak.

Baina horregatik kondaira, istorio, kanta, bizitzaren anekdotak... desagertu behar al dira?

Horiek desagertuz gero gure izaeraren eta herriaren historian hutsune bat sortuko litzateke, ahoz kontatzen diren gauza asko ezin direlako dokumentuekin ordezkatu.

Imajinatu zein polita litzatekeen ahozko ondare-iturri ez material horiek, ordezka ezinak direnak, gordetzea eta zabaltea. Ondo egongo litzateke web orrialde batean gure adinekoen eta pertsonen kontakizun historiko-kulturalak jasotzea eta zabaltea.

Animatu gaitzen herriz-herriz ahozko informazio hori jasotzen eta sare lan baten bidez zabalteko, pena merezi du eta!!! Horrelako adibide asko daude: ahotsak.com eta Labrit ondarea, besteak beste.

oztopoen gainetik
EUSKARAZ
Biziko
gara

Manifestazioa
Otsailaren 28an, Donostian
17:30ean, Gipuzkoa Plazan

KONTSEILUA

_kirola

TXIRRINDULARITZA

Aiarako Bira: Urtea gogor hasteko kadeteentzako bira

Otsailaren 28an hasiko da Aiarako Biraren XXVI. edizioa. Orotara 177.7 kilometro egin beharko dituzte proban parte hartuko duten kadete mailako txirrindulariek. Eskualdeko maldek proba "oso gogorra" bihurtzen dute, antolatzaileen esanetan.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

177.7 kilometro. Hori da Aiarako Biraren aurtengo edizioan parte hartuko duten txirrindulariek ibili beharko duten distantzia, lau etapatan banaturik. Ez dira edonolako kilometroak izango, proba "oso gogorra" baita. Hala adierazi du norgehiagokaren⁽¹⁾ antolakuntzan diharduen Valentin Campok. Hiru arrazoi aipatu ditu probaren gogortasuna argudiatzeko. Alde batetik, eskualdeko orografia. "Horren orografia gorabeheratsuek ia ezinezko egiten dute karrera suabe bat antolatzea", ziurtatu du. Bestetik, garai honetan "euria eta hotza" nagusizateak txirrindularien lana gehiago zailtzen duela azaldu du. Bukatzeko, urteko lehenetarikoko lasterketa izateak "lehia eta erritmoak" biziagoak izatea dakarrela gaineratu du antolatzaileak.

Urte hasieran zegoen karrerarik gabeko "espazio huts" bat betetzea izan zen Aiarako Biraren helburua, 1990an ospatu zen lehen edizioan. Laudioko Txirrindulari Elkartearen ekimenez sortu zen proba, eta Amurrio, Artziniega eta Aiarako klubak laguntzera mugatu ziren. "Duela lau urte, baina, Laudioko Txirrindulari Elkarteak lasterketa antolatzeari utzi zion, babesle falta zela eta", azaldu du Campok. Beste klubak bildu ziren orduan, eta hilabete baten bueltan antolatu zuten lasterketa, ohiko lau etapei laudiokoa kenduta. Hurrengo urtetik aurrera, baina, Laudioko elkarte berriz batu zen birara eta, horrela, lau etapak antola-

Itzulian garaile atera diren hainbat txirrindulari profesional mailara iritsi dira. Aiaraldeko kadeteak "garaipenaren bila" joango direla ziurtatu dute antolatzaileek.

tzeariekin zioten berriro, aldaketaxiki batekin: klub bakoitza bere zonaldeko etapa antolatuko zuen, modu autonomoan, eta gero klub guztien arteko koordinazioa egongo zen. Hala funtzionatzen dute gaur egun.

Profesionalen harrobi

Bilakaera bat eman da Aiarako Biraren orain arteko 25 edizioetan. "Lehen Arabako jendeak baino ez zuen parte hartzen", oroitu du Campok, "baina duela 15 urtetik hona Kantabria, Bizkaia, Nafarroa, Asturias, Aragoi zein Gaztelako taldeak aritu izan dira. Aurten Balentzia eta Kataluniako taldeak animatu dira". Campok azpimarratu du Aiarako Bira irabazi duten txirrindulari ugari profesional mailara iritsi egin direla. Aiaraldeko txirrindularien artean ere maila handia dagoela jakinarazi du: "1993an Iñaki Isasi aiarrak irabazi zuen proba, hurrengo bi urteetan David Sojo eta Xabin Arana okondorak, hurrenez-hurren⁽²⁾. Aurten lehiatuko diren kadeteak ere garaipenaren bila joango direla gaineratu du. "Arabako Ziklokros txapeldu-na den Joseba Otaola amurriarra dugu, eta badugu beste sorpresaren bat ere, baina ez diogu "etsaiari" pistarik eman nahi (barreak)".


Hiztegi lagungarria

Norgehiagokaren⁽¹⁾, txapelketaren / Hurrenez hurren⁽²⁾, orden horretan

_lehen etapa 44.5 km. (Otsailak 28)




_bigarren etapa 44.2 km. (Martxoak 7)



_hirugarren etapa 44.6 km. (Martxoak 14)



_laugarren etapa 44.4 km. (Martxoak 21)



Argazkia: Elkar Kiroiak



_kirola

TXIRRINDULARITZA: 165 kilometroko ibilbidea egingo du Laudioar Zikloturista lasterketak maiatzaren 16an

Maiatzaren 16an izango da Laudioako Txirrindulari Elkartek antolatutako Laudioar Zikloturista lasterketa. Orotara 165 kilometro egin beharko dituzte parte hartzaileek. Izena kirolprobak.com webgunearen bidez eman daiteke. Lasterketan Joane Somarriba txirrindulari gernikarra omenduko dute.



MENDIZALETASUNA: Martxoaren 1an egingo da Artziniegako "Yarri memoriala" mendi ibilaldiaren VI. edizioa

Martxoaren 1ean, igandea, "Yarri memoriala" Artziniegako mendi ibilaldiaren VI. edizioa egingo du Ganzorrotz mendi taldeak. Bi ibilbide prestatu dituzte: luzeak 25 km izango ditu eta laburrak 13. Izen ematea dohakoia izango da eta martxa hasi baino ordu laurden lehenago egin daiteke.



MENDI TXIRRINDULARITZA: BTT Arespalditzaren hurrengo edizioa ekainaren 14an izango dela jakinarazi dute

BTT Arespalditza mendi-txirrindularitza lasterketaren hurrengo edizioak badu data zehaztua. Ekainaren 14an, igandea, izango dela jakinarazi dute antolatzaileek, eta ziurtatu dute Aiara bako bako paisaiekin gozatzeko aukera izango dutela parte-hartzaileek. Datozen hilabeteetan informazio gehiago helaraziko dute.

ATLETISMOA

"Taldea gisa Espainiako Atletismo Txapelketan egongo gara"

ARIANE EGUILLUZ (Laudio, 1998) herriko atletismo taldeko kidea da. Langraitzen Arabako Txapelketa irabazi du eta orain erronka gehiago izango ditu.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Langraitzen Arabako txapelketa irabazi zenuen, zer nolako esperientzia izan zen?

Bi urtez bigarren postua lortu dut eta aurtan aukera asko nire lehenengo izateko. Oso pozik bukatu nuen txapelketa eta nahiko gustura ibili nintzen.

Euskadiko Kros Txapelketan aritu zara, ezta?

Bai, talde osoak parte hartu zuen. Nik 7. postua eskuratu dut eta pena izan da, 6. postutik aurrera Espainiako Txapelketan aritzeko aukera izaten baituzu.

Baina talde gisa 2. postua eskuratu genuen guztiok batera eta ondorioz Espainiako Atletismo Taldeen Txapelketan egongo gara.

Emaitza oso onak lortu dituzu. Zer da beharrezkoa horretarako?

Ona izatea gauza garrantzitsua da baina asko entrenatu behar da. Nik agian entrenamendurik gabe ez nituzkeen horrela-



ko posturik lortuko.

Nahiko gogorra da. Egutero entrenatzen dut ostiraletan ezik. Ordubeteko entrenamenduak dira eta ez dira berdina beti.

Zer nolako ibilbidea egin duzu atletismoan?

Txikitatik hasi nintzen atletismoan eta hasieran ez nintzen hain ona, baina apurka-apurka hobetuz joan naiz orain lortuta-ko dominak eskuratu arte.

Sendotzen ari da atletismoa Laudion?

Bai, nire taldean 4 neska gara eta askotan elkartzen gara ka-lean edo Ellakurin korrika egiteko.

Giroa nahiko ona da, guztiok elkar ezagutzen dugu duela urte asko, elkarrekin hasi genuelako eta jende gehiago gehitzen ari da.

Gero eta jende gehiago animatzen ari da. Txikien taldea handitu egin da.

Bandres-Karolo mendi-eski lasterketa

"Maldan gora, haginak estu eta elkarri animoak ematen"



Xabi Zalbide

Pirinioetan bereziki maite dudako leku bat bada -seguru aski txikitako bizipenei esker eta goi mendian egin nituen lehenengo pausok bertan izan zirelako-, hura izabako ingurua da. Añamendiek haien aurpegi malkartsuena erakusten hasten diren Nafarroa eta Zuberoa arteko bazter horretan daude gure mendi garaianak: Hiru Erregeen Mahaia, Ukerdi, Lakora... leku berezia da hortaz Erronkari barraren iparralde, eta gutxi izango dira azken hogeituzteotan, udan zein neguan, handik egun batzuk eman ez ditudan urteak.

Otsailaren 21 eta 22ko asteburuan bertara itzultzeko aukera izan dut, oraingoan Artziniegako Ganzorrotz mendi taldeko nire kide eta lagun Xabier Ortiz de Zaratekin, Bandres-Karolo mendi-eski lasterketan parte hartzeko. Lasterketa hau Euskal Herrian egiten den mendiko eski proba bakarra da eta 2012tik jokutzen da Izaban, euskal mendi-eskiaren bultzatzaile izandako bi pertsonen omenez: Antxon Bandres tolosarra eta Carlos Imirizaldu "Karolo" noindarra. Noingo mendi taldeak antolatzen du Euskal Mendizale Federazioaren laguntzaz eta Euskal Herriko txapelketa ere bada Bandres-Karolo memoriala.

"Zer ote da mendi-eskia?" galde-tuko duzue batzuek. Agian baten batek gaztelaniaz esqui de travesía irakurritako argituko du zalantza, eta bestela hau da, labor esanda: mendi elurtuetan igo eta jaisteko, ahal dela, eskiak baliatzen dituen kirola. Beste herrialde batzuetan "eski-alpinismoa" ere esaten zaio. Mendi-kiroletako gainerako modalitateak lez, loraldia ari da bizitzen gurean zein mundu zabalean azkenaldian. Hala, gero eta gehiago dira neguan eskiak hartuta gora eta behera dabilzanak, tartean



Mendi eskia praktikatzen igaro dute asteburua /aiaraldea.eus

gure eskualdeko mendizale ugari. Loraldi hori lasterketetan ere islatzen da, nahiz eta parte-hartzaile kopurua ez den iristen mendiko lasterketa arruntetan izaten diren zifra astronomikoetara; Izaban esaterako 150 bat lagun batu ginen.

Aurtengo negua hotza ari da izaten -Aiaraldean bertan eskia- aukera izan dugu- eta Izaban ere elurretan eman zuen asteburua. Ibilbideak egoera horren arabera moldatu zituzten, mendi-eskian beti segurtasuna lehene-nsi behar delako eta elur-jausi arriskua saihestu. Proba hauetan ohikoa den lez, bi egunetan jokatzen: zapatuan krono igoera

Izabako plazatik Saitzederra mendiraino, eta domekan Belaguako ibarreko baso eta larretan barrena 20 km-ko lineako proba. Mendi garaietara igo gabe ibili ginen beraz, borden paretik eskiatzen, pago eta izei zurien azpitik, maldan gora haginak estututa, elkarri animoak ematen... eta batez ere mendiaz gozatzen.

Hurrengo hitzordua martxoaren 14an dugu Picos de Europen, penintsula osoko zeharkaldirik klasikoenean: Andres de Regil kopako 40. edizioa. Bestelako parajeak, bestelako mendi batzuk, baina kirol honekin gozatzen segitzeko gogo berbera.



Irati
Marañoñ
ITZULTZAILEA

_Leihotik

Wandern

A spaldi ezagutu nituen, amari esker, haren onurak. Eta esker-erak eman nahi dizkiot, gainera. Osasuntsua da, merkea, mundu guztiak egiteko modukoa, taldeka zein bakarrik, eta hiri bat ezagutzeko modurik onena. Virginia Woolf-ek oso gustuko zuen, eta Kantek, eta Nietzschek, eta Rousseuk eta Dickensek... Eta erromantikoko alemanek, noski. Ez nintzen ba ni haiek baino gutxiago izango, ezta? Frantziar hari buruzko tratatu moduko bat idatzi berri du Frédéric Gros filosofoak, eta bestseller bilakatu da. Desobedientziarako tresna dela dio, eta gorputzaren, paisaiaren eta bidearen arteko uztarketa aldarrikatzen du liburuan. Paseatzeaz ari naiz, bai, ibiltzeaz. Edonora autoz joaten garen egunotan, presaka bizitzera kondenatuta gauden honetan, ezinbestekoa da gelditzea, amasa sakon hartu eta tipi-tapa oinei eragitea. Inguratzen gaituzten gauzei erreparatzea eta beste erritmo bati lotzea. Wandern izan zen, hain zuzen, alemanez ikasi nuen lehen hitzetako bat. The Grand Budapest Hotel-entzako antza zeukan hotel alpino batean izan zen, Alemania hegoaldean. Jakingo duzue honezkeror zer esan ahi duen, ezta?

Oscar Gastaka

“Itsua naiz, baina ez naiz tontoa. Jendea ni baino itsuago bizi da, arketipoekin”

OSCAR GASTAKA (Laudio, 1982) managerra da. 15 urtetan 65 musika talde kudeatu ditu: Berri Txarrak, Ekon, KOP, Etsaiak, Kashbad, EH Sukarra... Itsu batek dena ikusten duela dio, eta jendea bera baino itsuago bizi dela.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Zer ikusten du itsu batek?

Dena, jendea itsuago bizi da. Jendea arketipoekin bizi da. Hori jendea ezagutzeko aukera galtzea da. Denok gaude sistemaren barruan: alternatiboenak ere Nike zapatilak eta puntako mugikorra du.

18 musika talderen managerra zara...

Bai, musika taldeei kontzertuak lotzen dizkiet, edo diskoetxeekin kontratuak lotu.



Edo, telebista eta irratietan elkarriketak lotu. Gustatzen bazaizula oso polita da. Nik 16 urterekin hasi nuen manager lana. Lan honetan 15 urte daramatzat, bitzita erdia. Berri txarrak, Ekon, Kashbad, Inadataps, Kop, Banda Basotti, Etsaiak, EH Sukarra... Guztira, orain arte 65 talde mugitu ditut. Horretarako agentzia bat sortu nuen: Electric Bulegoa.

Xakera ere jolasten duzu, ezta?

Bai. Askok gustatzen zait baina egunak ordu gehiago

izan beharko lituzke horretarako. Azkenean manager lana 24 ordukoa da, beti egon behar zara hor.

Musikarien peoi ala errege, zer sentitzen zara?

[Barreak] Zein galdera onal! Zaldia, alde batetik bestera eraman ditudalako musikariak, eta oztopoen gainetik salto egitea dagokidalako! Azkenean beraiek badakite zu zarela agintzen duena. Erregetik dudak bakarria sinadura da, kazetaritza karrerako tituluan.

Zein abantaila eta oztopo ditu itsu izateak?

Inoiz ez naiz izango hegazkin pilotoa, hori da oztopo nagusia niretzat. Suaren bueltan sukaltzea da egiten ez dudak bakarria, baina pintxe fina naiz.

Zer gustatuko litzaizuke jendartean ikustea?

Tren geltokietan, kaleetan... Gizarateak oraindik aurrerapauso asko eman behar ditu. Ni itsua naiz baina ez dut arazorik, bi han-

ka ditut eta nahi dudak tokira bakarrik heldu naiteke. Garraioak ez daude prest. Hala ere, bakarrik bizi ezin daitekeen jende gehiago dago, edo bizitzeko nik baino arazo gehiago dituztenak.

Hamaika bitxikeria izango dituzu kontatzeko. Bat aukeratzetik?

Normalean jendeak behar bezirekin bat baduzu tontoa zarelak uste du. Ni itsua naiz, baina ez tontoa. Behin Bilbon nengoela Arenaleko zubian emakume batek besotik heldu ninduen: “Aizu, mutiko, badakizu Bilbon zaude la, ez?”. Nik adarra jo nion, bidai agentziara joan behar nintzela Hong Kongeko bidaia saldu zidatela salatzeke esanez. Gero egia kontatu nion. Apropos esan nion, leloak ez garela konturatu zedin.

Orain umorez hartzen dut, baina txikitan ez zidan graziaz egiten. Eskerrak umore beltza asko gustatzen zaidan.

Jendearen pentsamenduak gaitxo egiten nau, asko dugu egiteko.



USHUAIA

Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00(ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · PERFUMERIA · OSAGARRIAK

DESKONTU BEREZIAK
FAMILIA UGARIENTZAT ETA HIRUKIDEKOENTZAT

Edertasuna

Sauna

Solariuma